



Goienere Taldea da Korrikaren babesle ofizialetako bat. GOIENER

Goienere Taldea

GOIENER TALDEA, KORRIKARI ARGI EGITEN

Goienere Taldea herri kooperatiba izango da aurtengo Korrikaren babesle ofizialetako bat. Beste pauso garrantzitsu bat emango du energia berriztagarrien mundua euskalduntzeko duen asmo sendoan.

Urte berezia da aurtengo Goienere Taldearen 10. urte batego baidira. 2012. urtean irabazi asmorik gabeko kooperatiba hori martxan jarri zenetik. Hamarkada bakarrean, Goienere Taldeak herritar, enpresa eta entitate publiko askorengana iristea lortu du, eta pauso sendoak eman ditu eredu energetikoa eraldatzeko bidean. Besteak beste, %100 berriztagarria den ar-

gindarra merkaturatzen du, sortuntza proiektuak sustatzen ditu, aholkularitza zerbitzua eskaintzen ditu, eta lankidetzan dihardu eta helburu berberak dituzten erakundeekin. Ingurumena zaintzeko lanean, ordea, hizkuntza ezin da alde batera utzi, eta Goienere Taldearen beste helburu nagusietako bat da energia berriztagarrien sektorea euskalduntzea, eta horretan ari da lanean. Euskararen alde hartua duen konpromiso sendoan, beste urrats bat egin du aurtengo herri kooperatibak: 2022ko

Korrika egitasmoaren babesle ofizial izatea. Goienere Taldeak bere ekarpena egingo dio euskararen aldeko ekinbide erraldoiari, eta horren lekuko da 11 eguneko korrikalarien petoan izango duen ohorezko lekua. Era berean, bazkide guztiak gonbidatu nahi ditu Korrikaren parte hartzera.

ZERBITZUAK ETA FAKTURAK, EUSKARAZ

Gertu gaude, gertukoak gara dio Goienere Taldeak gehien errepikatzen duen leloak. Kooperatiban ezinbestekotzat jotzen dute hiz-

Goienere Taldearen kilometroak

Non	Eguna	Ordua	km
Gasteiz	Apirilak 1	18:57	319
Iruñea	Apirilak 2	12:19	533
Bilbo	Apirilak 6	21:45	1609
Ordizia	Apirilak 8	20:00	Urduñeta
Donostia	Apirilak 10	7:00	Añorga

kuntza eskubideak bermatzea eta langileek zein bazkideek euskaraz aritzeko eskubidea izatea. Horretarako, adibidez, euskararen menderatzea ezinbestekoa da bazkideekiko harreman zuzena eskatzen duten Goienereko lanpostuetan. Hori bai, euskararen zerbitzu hizkuntza gisa baino, irizpide ekologiko modura ulertuta.

Gertutasuna lortzeko ahaleginetan, telefonozko edo aurrez aurreko harremanetan, lehen hitza beti euskaraz egiteko konpromisoa du Goienereko. Horrek, kontsumitzaileentzat balio erantsi bat du; are gehiago, tramite guztiak euskaraz egiteko aukera eskaintzea izan da askorentzat Goienereko bazkide egiteko arrazoi nagusietako bat. Agerikoa da argindarraren faktura gaztelaniaz ulertzea ez bada erraza euskaraz are zailagoa suertatu dakiokela zenbaiti. Baina datuek diote behin euskaraz jasotzera ohituta oso gutxi direla gaztelaniara itzultzeko erabakia hartzen duten kontsumitzaileak.

ARGINDARRARI BURUZKOAK, EUSKARAZ

Goienereko hasieratik erabaki zuten derrigorrezkoa zela fakturak eta azalpenak euskaraz ematea, baina hizkuntzarekiko engeinamendua ez dute horretara mugatu. Kooperatiba abian jarri aurretik, adibidez, ez ziren batera ohikoak argindarraren merkaturari buruzko euskarazko hitzaldiak, besteak beste, aparteko lana eskatzen zuelako terminologia euskalduntzeak. Ahalegin handiak eginda, herri edo auzoetako eskariari erantzuten hasi zen Goienere, interesa zegoen leku bakoitzean hizlari euskaldun bat egon zedin ziurtatuz.

Hamar urteotan, batzar, aurkezpen, hitzaldi eta jarduerak publiko ia gehienetan euskararen presentzia bermatzea lortu du kooperatiba herritarrek, hizlariak gain, laguntzarako eskarri eta baliabideak ere egokituiz: aurkezpenak, bideoak, eskuorriak... eta, hala behar den kasuetan, aldi bereko itzulpen edo interpretazio zerbitzuak ere eskainiz.

Hizkuntza eskubideen inguruan urrats sendoagoak egiteko lanean, Goienere Taldean mugari

bilakatu zen 2020. urtean martxan jarritako Hizkuntza Plana. Horrela, kooperatibaren inguruko hizkuntza ohituren atzertuak osoago bat egin zen, datuak bildu, aztertu eta ondorioak ateraz.

EUSKARA BERMATZEAREN GARRANTZIA

Hizkuntza Planak erakutsi zuen, bazkideek Goienerekin komunikatzeko aukeratzuten duten hizkuntzari erreparatuta, %54ak euskararen lehenean duela. Bulegoetan ematen den arreta-presentzialetan, berriz, %51a egiten dela euskaraz.

Kontuak horrela, Goienereko ezinbestekoa izan da euskararen hobetzea lan-eskaintzak egiteko orduan. Hizkuntza eskubideak bermatu daitezke, kooperatibako langileen ia %80ak menderatzen du euskaraz ahoz, irakurriz zein idatziz.

HAMAR URTE, ERRONKA BERRIAK

Hamargarren urteurreneko ospakizunak atejoka dituztela, bazkide zein langileen hizkuntza aukerak bermatzen jarraitzea da Goienere Taldearen etorkizuneko erronka nagusietako bat, euskararen hautua, komunikazio zein fakturazio mailan, ziurtatuta egon dadin.

Kooperatiba barrura begira ere, ezinbestekotzat jotzen dute maila tekniko handiko lan gehiago euskaraz sortzea eta langileen arteko dinamika euskalduntzen jarraitzea, lanik nekezena ohitura horiek aldatzea baita. Kooperatiban, ilusioz eta baikortasunez bizi dute zeregin hori, eta horren adibide da bazkide eta langileen %7 euskaltegiaren batean izena emanda daudela.

Korrika egitasmoa baliatuz, Goienereko bereziki zoriondu nahi ditu bazkide eta langile horiek; diotenez, «euskararen erabilpena indartzea etorkizuneko inbertsio bat da, langileek ahaldundu eta zerbitzu hobea eskaintzeko».

@ Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.goienere.eus